

Banaketa eta komunikazio kanalak:

Aplikazio bat denez, gailu guztietan deskargatu ahal da. Beraz, ez da beharrezkoa banaketa bat izatea honetarako, soilik han aplikazioa sortzea eta deskargatzeko gai jartzea. Beste aldetik bezeroak liburuak erosten dituztenean, 'dropshipping' metoda erabiliko dugu. Metodo hau produktu bat saltzeko stock-ik ez izatean datza. Gure bezeroek liburuak aplikazioaren bidez erosterakoan idazleei eskaria ailegatuko zaie. Modu honetan, guk ez dugu stocka kontrolatu behar izango eta soilik han harremana sortuko dugu bezeroen eta idazleen artean.

Ahala ere, SEUR, Correos edo MRW-rekin harremanetan jarriko gara, gure banaketak ahalik eta denbora gutxien eta seguruen izateko.